

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

II.ERANSKINA: BALIOA SORTZEKO ERALDATZEN

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Aukera berriak sortzea ahalbidetuko duten gaitasunak eta jarduerak sustatzea, jardueraren eraldaketa sustatuz, jarduera berrien eta enpresa-eredu iraunkor berrien balio-ekarpenaren bidez.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauetarako eraldaketa-proiektuak garatzea izango da:

- Negozioaren eskumenak eta/edo oinarrizko eskumenak identifikatzea, etorkizunean potentzial handiagoa izango duten enpresa aukerak garatzeko balioa sortzen dutenak (atzerrira konektatutako enpresaren ezagutza bereizgarria identifikatzea eta zentzuz ustiatzea).
- Eskuin-ezkertea ikuspegia barne hartzen duen antolaketa-diseinua garatzea (egungo gaitasunak ustiatzeko potentzialtasuna, etorkizuneko garapenerako aukera berriak esploratzeari utzi gabe).
- Barnekintzailtzako dinamikak ezartzea (enpresaren barruan aldeko testuinguru bat sortzea, pertsonen eta enpresen berezko gaitasunak aprobeitzatzeko etengabeko dinamika baten bidez, bai barnekoa bai ingurunera irekia, negozio lerro edo jarduera ekonomiko berriak sustatzeko).
- Negozio aukera berriak sortzen dituzten dinamikak ezartzea, prospektiba eta aurreratze teknikak barne



hartzen dituztenak (enpresan eta kanpoan dagoen ezagutza eta sormena modu intentsiboan erabiliz eta konbinatuz. aurrez kontrastatutako merkatu balioko proposamenetan).

- Negozio ereduak balio erantsi handiagoko proposamenetara bideratzea, serbituzioa barne -produktutik produktu eta zerbitzu binomiora doan eboluzioa-.
- Eraldaketa eta dibertsifikazio irekiko egiturazko prozesuak diseinatzea (balioa eta ezagutza ematen duten kanpoko erakunde edo profesionalekin lankidetzan aritzeko eta konfiantza sortzeko prozesuak).
- Jarduera produktiboak Gipuzkoara itzultzea (Reshoring), baldin eta aurrez azpikontratutakoak, tokialdatutakoak edota Gipuzkoako enpresek EAetik kanpo garatutakoak badira;
- Ekonomia zirkularraren esparruan aukerak identifikatzea eta antolatzea, eta baita ere eko-diseinuaren eta eko-zerbituzioaren esparruan.
- Aukerak identifikatzea eta antolatzea, ekonomia sortzailearekin lotutako jarduerak txertatuz.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta II.eranskina - 5.oinarria).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.



BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: 2021eko uztailaren 19an, goizeko 12:00etan amaituko da.

Jarduerak hasteko epea: dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.

Proiektuen exekuzio data: 2022ko ekainaren 17a.

Proiektuak justifikatzeko data: 2022ko uztailaren 17a

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2021eko oinarri arautzaileak eta deialdia: II.ERANSKINA - Aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatu. (2021eko ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 114 zk. 2021eko ekainaren 18an](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/Balioa-sortzeko-eraldatzen>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus